



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak
Udalbatzarraren akta

Sesiones de órganos de gobierno colegiados
Acta de Pleno

OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO

2024KO ABENDUAREN 3A / 03 DE DICIEMBRE DE 2024

ETORRITAKOAK / ASISTENTES

ALKATE-UDALBURUA / ALCALDESA

Beatriz Gámiz Mata (PSE-EE / PSOE)

ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDESA

Rosa María Cid Seara (PSE-EE / PSOE)

Harri Araiztegi Arrizabalaga (EAJ/PNV)

José Manuel López Conde (PSE-EE / PSOE)

Miguel Ledesma Piñeiro (PSE-EE / PSOE)

Mikel Cantero Vidal (EAJ / PNV)

CONCEJALES / ZINEGOTZIAK

Juan Carlos Abascal Candás (PSE-EE / PSOE)

Ricardo Martín López (PSE-EE / PSOE)

Paul Yarza Agirregomezkorta (EH Bildu)

Asier Ibaibarriaga Apoita (EH Bildu)

Julen Rodríguez Barrenetxea (EH-Bildu)

Idoia Goikoetxea Guridi (EH Bildu)

Jol Gisasola Garai (EAJ / PNV)

Julen Domínguez Sánchez (ELKARREKIN ERMUA)

Alberto García-Abad Sánchez (ELKARREKIN ERMUA)

Francisco Javier Sánchez Gómez (PP)

Mónica Martín-Lorente Rabanete (PP)

IDAZKARIA / SECRETARIO

Juan Agustín Villafranca Bellido

ETORRI EZ DIRENAK / AUSENTES

Akta hau Osoko Bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:

https://www.ermua.eus/eu/sesiones_organos_gobierno/pln202418

La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:

https://www.ermua.eus/es/sesiones_organos_gobierno/pln202418

Baliozkotze Kod.: 62SSG3DDNL2KYYFZEKHRSC9M
Egiazapena: <https://ermua.eus/egiazapena>
esPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 13



Idazkari jaunak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, Alkate-Udalburu andreak bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du. Jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin dio.

Udaletxeko bilkura aretoan, 2024ko abenduaren 03 19:00etan, orrialdearen hasieran adierazten diren udalkide jaun-andreak lehenengo deialdian bildu dira, ohiko bilkuran.

GAI ZERRENDA

- 1. BILKURAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO EDOZEIN GAIREKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER GAUZA GARRANTZITSU JAKITERA EMATEKO ALKATEAREN GONBIDAPENA**

Bilkuran dauden pertsonei eguneko gai-zerrendako edozein gairekin lotutako edozein interes zuzen eta garrantzitsu jakitera emateko Alkate-Udalburu andreak egin dien gonbidapenari pertsona horiek erantzun diote ez dela beraian gertatzen abstenitzera behartzen duen inolako arrazoirik.

Bilkura publikoa da eta herritarrei irekia.

- 2. 2024/10/29KO OSOKO BILKURETAKO AKTA ONARTZEA**

BOZKETAREN EMAITZA

Una vez comprobada por el Sr. Secretario la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, la Sra. Alcaldesa-Presidenta abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el orden del día.

En el salón de sesiones de la Casa Consistorial, a las 19:00 del día 03 de diciembre de 2024, en primera convocatoria, se reúnen las señoras y señores miembros de la Corporación antes citados, en sesión ordinaria.

ORDEN DEL DÍA

- 1. INVITACIÓN A LAS PERSONAS ASISTENTES A QUE COMUNIQUEN CUALQUIER INTERÉS RELEVANTE QUE PUDIERA EXISTIR EN RELACIÓN CON CUALQUIERA DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DE LA SESIÓN**

A la invitación de la Sra. Alcaldesa-Presidenta para que las personas asistentes a esta sesión comuniquen si tienen un interés relevante en relación con cualquiera de los asuntos incluidos en el orden del día, responden que no concurre en ellas causa alguna que les obligue abstenerse.

La sesión es pública y abierta a la ciudadanía.

- 2. APROBACIÓN DEL ACTA DE PLENO DE FECHA 29/10/2024**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

Aldeko botoak:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 2
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 36. artikuluan eta Korporazioaren berezko Erregelamendu Organikoaren 43. artikuluan ezarritakoari jarraituz, **2024/10/29ko bileretako akta onartu da.**

3. ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

4. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ORDENANTZA ONARTZEA

Votos a favor:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 2
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

Conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación, queda aprobada el acta correspondiente a la sesión de fecha **29/10/2024.**

3. DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA

El Pleno se da por enterado.

4. APROBACIÓN DE LA ORDENANZA DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

BOZKETAREN EMAITZA

Aldeko botoak:

- PSE-EE / PSOE: 6

Votos a favor:

- PSE-EE / PSOE: 6



- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 2
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Kontrako botoak: 0

Abstenziak: 0

ERABAKIA

1. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordenantza behin behinekotasunez onartzea horretarako izapidetutako espedientean jasotako baldintzetan.

2. Behin-behineko erabaki hori hogeita hamar lanegunez jendaurrean erakustea, iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz. Epe horren barruan interesdunek erreklamazioak, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte

3. Erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin-betikoa izango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da testu osoa, Udalbatzarrak gai horren inguruan berariaz beste adierazpenik egin beharrik gabe.

5. EDINEKOENTZAKO EGUNEKO ARRETA ZERBITZUAREN ORDENANTZA ONARTZEA

- EH Bildu: 4
- EAJ /PNV: 2
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

ACUERDO

1º Aprobar inicialmente la ordenanza del Servicio de Ayuda a Domicilio, en los términos que constan en el expediente tramitado al efecto.

2º Exponer al público el anterior acuerdo provisional, durante 30 días hábiles, mediante anuncio publicado en el tablón de anuncios y en el Boletín Oficial de Bizkaia, dentro de los cuales las personas interesadas podrán presentar las reclamaciones, alegaciones que estimen oportunas.

3º En el supuesto de que no se presenten reclamaciones o alegaciones, la ordenanza se entenderá definitivamente aprobada, procediéndose a la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin necesidad de nuevo pronunciamiento expreso del Pleno de la Corporación.

5. APROBACIÓN DE LA ORDENANZA DEL SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA A PERSONAS MAYORES

BOZKETAREN EMAITZA

Aldeko botoak:

Votos a favor:





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

- PSE-EE / PSOE: 6
- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 2
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Kontrako botoak: 0

Abstentziak: 0

- PSE-EE / PSOE: 6
- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 2
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

ERABAKIA

1. Edinekoentzako eguneko arreta Zerbitzuaren ordenantza behin behinekotasunez onartzea horretarako izapidetutako espedientean jasotako baldintzetan.

2. Behin-behinekoko erabaki hori hogeita hamar lanegunez jendaurrean erakustea, iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz. Epe horren barruan interesdunek erreklamazioak, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte

3. Erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin-betikoa izango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da testu osoa, Udalbatzarrak gai horren inguruan berariaz beste adierazpenik egin beharrik gabe.

19:09an, Jol Gisasola Garai bileran sartu da.

6. GIZARTE-LARRIALDIKO ETXEBIZITZEN ZERBITZUAREN ORDENANZA ONARTZEA

ACUERDO

1º Aprobar inicialmente la ordenanza del Servicio de Atención Diurna de Personas Mayores, en los términos que constan en el expediente tramitado al efecto.

2º Exponer al público el anterior acuerdo provisional, durante 30 días hábiles, mediante anuncio publicado en el tablón de anuncios y en el Boletín Oficial de Bizkaia, dentro de los cuales las personas interesadas podrán presentar las reclamaciones, alegaciones que estimen oportunas.

3º En el supuesto de que no se presenten reclamaciones o alegaciones, la ordenanza se entenderá definitivamente aprobada, procediéndose a la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin necesidad de nuevo pronunciamiento expreso del Pleno de la Corporación.

Siendo las 19: 09 horas Jol Gisasola Garai se incorpora a la sesión.

6. APROBACIÓN DE LA ORDENANZA DEL SERVICIO DE VIVIENDAS DE URGENCIA SOCIAL

BOZKETAREN EMAITZA

RESULTADO DE LA VOTACIÓN



Aldeko botoak:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EAJ / PNV: 3
- PP: 2

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak:

- EH Bildu: 4
- Elkarrekin Ermua: 2

Votos a favor:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EAJ /PNV: 3
- PP: 2

Votos en contra: 0

Abstenciones:

- EH Bildu: 4
- Elkarrekin Ermua: 2

ERABAKIA

1. Gizarte-Larrialdiko Etxebizitzaren Zerbitzuaren ordenantza behin behinekotasunez onartzea horretarako izapidetutako espedientean jasotako baldintzetan.

2. Behin-behineko erabaki hori hogeita hamar lanegunez jendaurrean erakustea, iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz. Epe horren barruan interesdunek erreklamazioak, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte

3. Erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin-betikoa izango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da testu osoa, Udalbatzarrak gai horren inguruan berariaz beste adierazpenik egin beharrik gabe.

**7. MENDEKOTASUNA DUTEN
PERTSONEN ZAINTZAILEEI
LAGUNTZEKO ZERBITZUAREN
ORDENANTZA ONARTZEA**

ACUERDO

1º Aprobar inicialmente la ordenanza del Servicio de Viviendas de Urgencia Social en los términos que constan en el expediente tramitado al efecto.

2º Exponer al público el anterior acuerdo provisional, durante 30 días hábiles, mediante anuncio publicado en el tablón de anuncios y en el Boletín Oficial de Bizkaia, dentro de los cuales las personas interesadas podrán presentar las reclamaciones, alegaciones que estimen oportunas.

3º En el supuesto de que no se presenten reclamaciones o alegaciones, la ordenanza se entenderá definitivamente aprobada, procediéndose a la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin necesidad de nuevo pronunciamiento expreso del Pleno de la Corporación.

**7. APROBACIÓN DE LA ORDENANZA
DEL SERVICIO DE APOYO A
PERSONAS CUIDADORAS DE
PERSONAS DEPENDIENTES**





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

BOZKETAREN EMAITZA

Aldeko botoak:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 3
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN

Votos a favor:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 3
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

ERABAKIA

1. Mendekotasuna duten Pertsonen Zaintzaileei Laguntzeko Zerbitzuaren ordenantza behin behinekotasunez onartzea horretarako izapidetutako espedientean jasotako baldintzetan.

2. Behin-behineko erabaki hori hogeita hamar lanegunez jendaurrean erakustea, iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz. Epe horren barruan interesdunek erreklamazioak, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte

3. Erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin-betikoa izango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da testu osoa, Udalbatzarrak gai horren inguruan berariaz beste adierazpenik egin beharrik gabe

ACUERDO

1º Aprobar inicialmente la ordenanza del Servicio de Apoyo a personas cuidadoras de Personas dependientes en los términos que constan en el expediente tramitado al efecto.

2º Exponer al público el anterior acuerdo provisional, durante 30 días hábiles, mediante anuncio publicado en el tablón de anuncios y en el Boletín Oficial de Bizkaia, dentro de los cuales las personas interesadas podrán presentar las reclamaciones, alegaciones que estimen oportunas.

3º En el supuesto de que no se presenten reclamaciones o alegaciones, la ordenanza se entenderá definitivamente aprobada, procediéndose a la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin necesidad de nuevo pronunciamiento expreso del Pleno de la Corporación.



**8. URAREN ZIKLO OSOA
KUDEATZEKO ARDURA
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA
ONARTZEA**

**8. APROBACIÓN DE LA ENCOMIENDA
DE GESTIÓN DEL CICLO INTEGRAL
DEL AGUA AL CONSORCIO DE
AGUAS DE GIPUZKOA**

BOZKETAREN EMAITZA

Aldeko botoak:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 3
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN

Votos a favor:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EH Bildu: 4
- EAJ / PNV: 3
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

ERABAKIA

LEHENENGO.- 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera ere Gipuzkoako Ur Kontsortzioak (Ermuko Udala horren kide baita), zehazki, Aguas de Gipuzkoa - Gipuzkoako Urak, S.A. sozietatearen bitartez, uraren ziklo osoaren kudeaketa egiten jarraituko duela zehaztea. Zerbitzu horrek bere baitan hartzen du alta- eta baja-sareak kudeatzea, bai hornidurakoak, bai saneamendukoak, bai eta beharrezkoak diren inbertsioak eta hobekuntzak egitea ere.

BIGARREN.- Uraren ziklo osoa kudeatzeko sinatu beharreko ardura-emate hitzarmena onartzea, eta, ondorioz, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea bai uraren ziklo osoaren tasak eta prezioak, bai zabor-tasa kudeatzeko, likidatzeko eta biltzeko ahalmenak.

Hitzarmen hori honako erabakiari erantsita dago.

ACUERDO

PRIMERO.- Determinar que a partir del 1 de enero de 2025 la gestión del ciclo integral del agua siga siendo prestada por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, del que el Ayuntamiento de Ermua es miembro, y, específicamente, a través de la sociedad Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak, S.A. Dicho servicio comprende la gestión de las redes de alta y baja, tanto de abastecimiento como de saneamiento, e, incluso, la realización de las inversiones y mejoras necesarias.

SEGUNDO.- Aprobar el convenio de la encomienda a suscribir para la gestión del ciclo integral del agua, y, en su virtud, delegar en el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa las facultades de gestión, liquidación y recaudación de las tasas y precios del ciclo integral del agua, así como de la tasa de basura.

Dicho convenio se adjunta como anexo al presente acuerdo.

Baliozkotze Kod.: 62SSG3DDNL2KXYFZEKHRSC9M
Egiaztagarria: <https://ermua.euzkadi.eus/>
eSPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 13





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Kide anitzeko gobernu-organismoen bilerak Udalbatzarraren akta

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

HIRUGARREN.- Alkate-udalburuari uraren ziklo osoa kudeatzeko Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin sinatu beharreko kudeaketaren ardura-emate hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

LAUGARRENA.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea ardura-ematearen hitzarmenaren testua.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldesa-Presidenta para la firma del convenio de encomienda de gestión a suscribir con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa para la gestión del ciclo integral del agua.

CUARTO.- Publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia el texto del convenio de encomienda de gestión.

9. ERMUAN HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN INGURUKO IKERKETA BAT EGITEKO ESKATUZ EH BILDUK AURKEZTU DUEN MOZIOA

9. MOCIÓN PRESENTADA POR EH BILDU SOLICITANDO UN ESTUDIO SOBRE VIVIENDA VACÍA EN EL MUNICIPIO DE ERMUA

BOZKETAREN EMAITZA

Aldeko botoak:

- EH Bildu: 4
- Elkarrekin Ermua: 2

Kontrako botoak:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EAJ / PNV: 3
- PP: 2

Abstentzioak: 0

ERABAKIA

Ermuan hutsik dauden etxebizitzak inguruko ikerketa bat egiteko eskatuz EH Bildu aurkeztu duen mozioa ezestea.

10. 2024KO EUSKAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

RESULTADO DE LA VOTACIÓN

Votos a favor:

- EH Bildu: 4
- Elkarrekin Ermua: 2

Votos en contra:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EAJ / PNV: 3
- PP: 2

Abstenciones: 0

ACUERDO

Desestimar la moción presentada por EH Bildu solicitando un estudio sobre vivienda vacía en el municipio de Ermua.

10. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA DE 2024

BOZKETAREN EMAITZA

RESULTADO DE LA VOTACIÓN



Aldeko botoak:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EAJ / PNV: 3
- EH Bildu: 4
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA

2024ko Euskararen Nazioarteko
Egunaren adierazpen instituzionala onartzea.

DEKLARAZIO INSTITUZIONALA

Bat, eta bat, eta bat, eta beste bat... bi, gehi beste bat... gehiketa da gaigintza, txirikordan dabilzan harien ehuna sortzen dugun bat eta bakar kolektiboak. Gaigintza da gehiketa kolektibo txirikordatua. Ehungintzaren artea. Ehundarron mugimendua. Ari eta ari, hariak gurutzatuz bidegurutzeetan. Ebakidura eta loturak hari fin edo lodien artean. Gorri, urdin edo zuriak... bat eta bakoitza bere-berea elkarri begira. Korapiloak, elkargune. Bakoitza nor berea, nortasun bat eta bakar. Hari sendo eta ahul. Hari zahar edo berri. Ez deusa bakarrik, eta osoa, batera. Ehun! Guztion artean ehuna!

Ehundegi bat gara, bakartasunak batuz, gurutzatu eta korapilatuz gabiltzan hari luze-laburren ehungile artisauek. Ixte zein irekitze. Korapilo, lotura eta askatzeak. Eskuaren tenkatze eta lasaialdiaren mugimendua gara. Euskararen ehundegia. Garen geroaren ehundegia.

Votos a favor:

- PSE-EE / PSOE: 6
- EAJ / PNV: 3
- EH Bildu: 4
- Elkarrekin Ermua: 2
- PP: 2

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

ACUERDO

Aprobar la Declaración institucional
del Día Internacional del Euskera de 2024.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Un hilo, y un hilo, y uno, y otro... dos, otro más... lo importante es la suma, ese tejido individual y, a la vez, colectivo, que conforman todos los hilos trenzados entre sí. Lo realmente importante es la creación colectiva a partir de unos simples hilos. El arte textil. El movimiento de los telares. Anudando hilos en las intersecciones. Cortes y uniones entre hilos finos o gruesos. Rojos, azules o blancos... Mirándose unos a otros Nudos convertidos en puntos de encuentro. Cada cual con su personalidad. Hilos gruesos compartiendo espacio con hilillos. Hilos viejos junto a otros más jóvenes. La nada, en solitario; el todo, en conjunto. ¡El lienzo! ¡El lienzo tejido por toda una comunidad!

Entre todos formamos un taller de artesanos que, trabajando a veces con hilos cortos y a veces con hilos más largos, pespuntamos, remendamos y rematamos nuestras respectivas soledades. Abriendo y cerrando. Zurciendo, hilvando y descosiendo. Somos el movimiento que estira la mano para





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

relajarla después. El telar del euskera. El telar del futuro de lo que ya somos.

Zaharra da euskararen ehundegia. Hariz hari, hariak eta hariak batuz ekinean aritu izan garen herritar eta euskaltzaleak iragana bezainbat gara oraina. Euskara dugunak bezainbat oraindik ez dutenak. Euskararen aldeotasunak hizkuntza ezberdinak ditu, hiztun mota ezberdinak gara, eta guztiok osatzen dugu euskararen ehuna. Mugimenduan gabiltzanon ehuna.

Euskararen aldeko ekinek ehunka egun eta urtetan iraun dute geldialdirik gabe bidegile eta bidelagun ekintzaileei esker. Euskararen hurrengotaratzearen katebegigileak izan dira. Ezinbestean, euskarak bidegileak behar izan dituelako.

Bidelagun nekaezinak, kolektiboa. Ekintza eta taldetasuna osatu duten euskaltzaleak. Ametsa, jolasa eta saretzea egia bihurtu duten talde zein mugimendu eragileak gara ehundegi honetako protagonista nagusiak.

Bat, eta bat... eta beste bat... bi eta bi, eta beste bat. Baina bi edo bat, eta bat. Agian, beste bat. Edo, agian, bat eta erdi bat. Halere, euskarari emanak garen

Viejo es el telar del euskera. Quienes amamos nuestra lengua, quienes se han dedicado a tejer hilos y más hilos a lo largo de su vida son tantos ahora como lo eran antes. Algunos sabiendo euskera; otros desconociéndolo. Porque los hilos de otras lenguas también tienen cabida en el tejido del euskera. Nuestro movimiento no ha sido ni será de un solo idioma. La defensa del euskera engloba a diferentes lenguas, a diferentes tipos de hablantes, y todas y todos formamos el mismo tejido. El tejido de quienes estamos en marcha.

Las iniciativas a favor del euskera se han mantenido sin interrupción a lo largo de los años gracias al esfuerzo tenaz de quienes han sido compañeros de viaje. Escritores tanto en euskera como en castellano, como personas creadoras, narradoras, cantantes, defensoras de la lengua... Todos ellos y ellas han sido eslabones de la cadena que constituye el futuro del euskera. La suya ha sido una labor imprescindible, porque el euskera siempre ha necesitado de su presencia.

Han sido unos acompañantes incansables. Un verdadero colectivo. Euskaltzales que han estado siempre allí donde había que arrimar el hombro, desde las agrupaciones. Colectivos que, a fuerza de perseverancia, han hecho realidad un sueño, como en un juego, y, en definitiva, se han convertido por méritos propios en los grandes protagonistas de este telar que es el euskera.

Un hilo, y un hilo... y otro... dos y dos, y otro. Pero dos o uno, y uno. A lo mejor, otro. O, tal vez, uno y medio. Sin embargo, en el lienzo tejido por este colectivo que trabaja por el euskera la acción se va



kolektiboaren marrazkia irteten den ehunean, ekina ahultzen ari da. Harien tenkatze eta lasatzea, mugimendua bakantzen sumatzen dugu mundu globalaren erritmoetan. Ezina. Ekinari eutsi eta eman ezina. Korapilo haundi samar bat ehunean kateatuta. Tenkatze lan minbera sortzen duena eskuetan. Multzoaren uztearen ondoriozko hustea. Hutsunea ageri da ehunean. Marrazkiaren zulo txikia. Gizartearen ardura kolektiboa besterentzen ari den unea, taldetasuna eta ekintzailtza gero eta urrunago suertatzen ari zaizkigu, eta ehunean bada zulo bat, bete ezin duguna. Eskua ekinera iristen ez den ez-leku hori agertzen da gure begietan.

Bai. Agertzen da hutsartea euskararen ehunean. Eta gabiltza ekinean hari-gurutzeak osatuz, korapiloak handitu eta lasaituz. Kolorez kolore. Ehundura osatuz. Ilaraz ilara, elkar gurutzatuz. Elkar sendotuz. Euskararen ehun zulatua eder bilakatuz, gertu zein urrutiko begiratuan. Zuloa, hari etena eta nahastura ere bagarelako. Euskararen ehundegian, baina, ekina da jarraipena. Ekina da artez bizirautea. Mugimendu soziala. Erakunde publiko, elkarte, langile eta etxekoak. Euskararen aldeko mugimendua gara. Euskarari emanak eta euskarari esker ekinean nor izan nahi dugunak. Euskararen ehundegia gara. Garen geroaren ehungailu etengabeak.

Euskararen egunean, ehungile garen erakunde publikoei eta gizarte eragileei eupada handi bat zor diegu. Geldialdiarik gabeko bidea da euskararen indarberitzearen bizitza, eta ekinean gabiltzanon ardura elkarren aitortza eaginez, gure erronka berriei erantzuteko

debilitando. Como hacemos con los hilos, estiramos y aflojamos. Y en un mundo tan global el empuje colectivo parece que pierde fuerza. Lo imposible. Como si los hilos formasen de pronto un enorme nudo que enmaraña el tejido. Que cuesta soltar con las manos. Miedo a abandonar el conjunto. Hay un vacío en el tejido. Un pequeño agujero en el dibujo. En un momento en el que la responsabilidad colectiva se aleja, también parece alejarse el activismo, y aparece un agujero en el tejido que no podemos llenar. Ante nuestros ojos se perfila ese no-lugar donde la mano no llega a actuar.

Sí. El tejido del euskera es delicado. Y para mantenerlo cuidado, cruzamos hilos o agrandamos y aflojamos nudos. Color a color. Remendamos la tela. Fila a fila. Entretejiendo. Entrelazando. Convirtiendo el desgarró en algo hermoso, tanto visto de cerca como de lejos. Porque también somos un agujero, un hilo discontinuo y, a la vez, una amalgama. En el telar del euskera, la continuidad pasa por seguir trabajando. La revitalización pasa por seguir trabajando. Movimiento social. Sector público, asociaciones, trabajadores y familiares. Somos acción a favor del euskera. Para el euskera y lo que queremos ser gracias a él. Somos el telar del euskera. Los telares inquebrantables de nuestro futuro.

En este día del euskera, es de justicia reconocer la enorme labor realizada por personas e instituciones que han dedicado sus esfuerzos a tejer el lienzo de nuestra lengua. La revitalización del euskera es un proceso imparable y nuestra responsabilidad, siempre desde el reconocimiento del trabajo llevado a cabo por los demás, pasa por crear las condiciones que permitan responder





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren akta

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acta de Pleno

baldintza berriak sortzea.

Euskararen ehuntze ariketa guztion ardura da. Erakunde publikoona eta gizarte eragileona. Ekina ezinbestekoa da. Euskarak mugimendua behar du, bere-berea duen bizia mantendu eta geroz eta biziagoa izateko; euskararen distirak aniztasunetik guztiok zipriztindu gaitzan.

Euskara guztiona da. Hemen gauden eta etorriko diren guztiona. Irabaz dezagun elkarrekin euskararen bidea.

adecuadamente a los nuevos retos del euskera.

El ejercicio de tejer el euskera es responsabilidad de todas las personas. Instituciones públicas y agentes sociales. La acción es imprescindible. El euskera necesita movimiento para mantener su esencia y vitalidad; para que su luz nos haga brillar desde la diversidad.

El euskera es de todas y de todos. De quienes estamos aquí y de quienes están por llegar. Avancemos decididamente por el camino del euskera.

11. ESKARI GALDERAK

Bilkura honetan aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkateak bilkura bukatutzat jo du 20:38, eta nik, Idazkaria naizenez, guztiaren fede eman dut.

Akta honek zazpi orri dauzka alde bietatik idatzita eta 347tik 359ra zenbakituta.

11. RUEGOS Y PREGUNTAS

No habiendo más asuntos a tratar, de orden de la Alcaldesa se da por finalizada la sesión, levantándose la misma a las 20:38 del día de la fecha de todo lo cual como Secretario doy fe.

Consta esta acta de siete folios, escritos por ambas caras, numeradas del 347 al 359.

